

Ostiralean, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK Berdintxiketan Berdintasunaren aldeko VI. Lasterketa Mistoia egin zen Oñatin.

2016/05/18

Berdintasuna sustatze aldera, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Enpresagintza Fakultateak Berdintxiketan Berdintasunaren aldeko VI. Lasterketa Mistoia antolatu zuen. Lasterketa maiatzaren 13ean, ostiralean, izan zen 18:30ean. Ibilbideak bost kilometro izan zituen, eta Enpresagintza Fakultatean hasi eta Foruen Enparantzan amaitu zen.

Lasterketaren helburua ez da bikotekide batekin korrika egitea bakarrik, berdintasunaren aldeko herri-lasterketa batean parte hartzea baizik. Lasterketa horren bitartez, emakumeek kirola egitea sustatu eta, lehiatik harago, kirola egiteko beste modu batzuk daudela erakutsi nahi da.

Lasterketako argazki gehiago ikusteko: [Enpresagintza flickr](#)

